

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria


11/10/21 | 351

🌀 Ibon artola eta Unai Igartua

🌀 Marian Urkizu

🌀 Leire Bilbao, Scanner

🌀 Kup Taldea Abesbatza



Isidro Larrañaga
Akordeoi Orkestra
31 urtez
soinuari
eraginez

🌀 Kike Zinkunegirekin solasean

P.OÑATIBIA

e s t e t i k a

FOTODEPILAZIOA

KRISIARI AURRE EGITEKO PROMOZIOA

30 € ATALEKO

(SESIOKO, TRATAMENTUA BUKATU ARTEAN)

HOZTE SISTEMA DUEN AZKEN TEKNOLOGIAKO FOTODEPILAZIO KLINIKOA, MINIK GABEKOA

FROGA **DOHAINIK**

Rondilla, 7 - 20400 Tolosa Tel.: 943 536 971

SUPER EKO


SUPERMERKATUA

*Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua*

<http://twitter.com/supereko4>

*etorri, gure
produktu berriak
ezagutuko dituzu*

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

825 171001111



Ekainera faxa beharrezkoa izango da 2013/11/15tera arte. Normalki 3 euro optikan, konbinatzen ezagertzen. Ezin da pilako beste produktu batzuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria deon banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: 31 urtez soinuari eraginez

Badira 31 urte Kilometroak festa lehenengoz Tolosan ospatu zela. Ospakizun data hori aitzaki hartuta Isidro Larrañaga Belokik Tolosako Akordeoi Orkestra sortu zuen 1980an. Gaur, 31 urte igarota bere semeari dagokio orkestraren zuzendaritza, Isidro Larrañaga Morenori, Isitxori. Galtzaundi entsegu aretoan barneratu eta zuzendaria eta orkestra kideekin mintzatu da lehiaketetz, kontzertuez, bidaiez... akordeoi hotsak lagunduta.

8-11. orrialdeak

Kike Zinkunegi bizikletan ibili ohi da batetik bestera. Kirola egiteko, bidaiatzeko eta egunerokotasunean batetik bestera mugitzeko erabiltzen du.

Elkarrizketa: Kike Zinkunegi

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Ibon artola eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Marian Urkizu	12
	Irakurlearen begietatik: Leire Bilbao, Scanner	17
	Kup Taldea Abesbatza Kantuaren Europar Sari Nagusiaren bila	18-19

Langile klaseak eta gazteriak greba orokor berri bat bilduko duen borroka egutegi bat behar dute



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Gaur egun, mundu osoko kapitalistek eta beren ordezkariak gauza berbera defendatzen dute: krisiari aurre egiteko beharrezkoa da bizi baldintzetan sakrifizioak egitea. Baina hori bai, sakrifizioak egin behar dituztenak ez dira bankariak eta enpresari handiak, mundu osoan zehar egoera honen aurka altxatzen ari diren langileak eta gazteak baizik. Euskal Herritik ere, aurre egin behar diegu kapitalisten eraso guztiei munduko gainerako zapalduekin batera.

lkaragarrizko ondasunak pilatzen dituen burgesiak esaten digu, defizit publikoaren eta gastu sozialen murrizketaren sakrifizioa onartu behar dugula “merkatuen” konfiantza pizteko eta handitzeko. Langile klaseari eskatzen dizkiote sakrifizio guztiak, eta horrela, zor publiko guztia azken euroraino langileek ordaintzea nahi dute. Hala ere, langile klasea eta gazteria erakusten ari dira mundu guztian zehar ez daudela prest eraso hauek onartzeko. Ikusten ari garen borroka eta gatazkek gero eta ezagurrari iraultzaileagoak dituzte: herri arabiarretako iraultzak, Greziako

borroka, Txileko ikasle mugimenduaren mobilizazio historikoak... eta arazo sozialak ez omen zeuden Ingalaterra eta Israel bezalako lekutako leherketak.

Munduko leku askotan bezala, beharrezkoa da eta posible da Euskal Herrian ere borroka sakontzea. Zاپateroren Gobernuak hainbat neurri onartu ditu langile klasearen aurka azken hilabeteetan bata bestearen atzetik: horietako bat konstituzioaren erreforma izan da gastu publikoaren mugen inguruan. Krisiaren zama guztia gazteen eta langileen bizkar gainean jarri nahi dute. Bitar-

tean, enpresari handi, bankari eta espekulatuzaileentzat, ekonomikoki mesede egiten dieten neurriak onartzen dira.

PSOEn Gobernuak eraso gehiago ekarri dizkigu bere agintaldiaren amaieran, berriro ere, kaltetuenen aurka. Alde batetik, prekarietatean eta langabezian dauden gazteen aurka, eta bestetik, langileria osoaren aurka. Onartutako erreformek aldi baterako kontratuen kateatze mugagabea balioztatzen dute eta 30 urtera heldu arte “praktiketako gazte” bezala hartuko da edozein pertsona. Honek guztiak atzerakada suposatuko du lan baldintza eta lan eskubideetan, soldatak ere are gehiago jaitsiz. Baina neurri hauek ez datoz bakarrik. Erabateko presarekin, konstituzioaren aldaketa iragarri zen abuztuan, sektore publikoan inbertsioen murrizketa azkartzea proposatzen zuena. Orain, hezkuntza eta osasun publikoa erasotzea izango da PPren helburu nagusia. Katalunian CiUren Gobernuak egin dituen murrizketak dira aurrekari.

Urtarriletik jasan ditugun eraso gogor- rakk, hauen aurka batik bat UGT eta CCOO sindikatueta zuzendaritzek emandako erantzun faltaren ondorio dira. ELA eta LABeko zuzendaritzan partetik ere, akatsa izan da urtarrilaren 27ko greba orokor garrantzitsuari mobilizazio eta greba orokorren borroka plan batekin jarraipena ez ematea. UGT eta CCOOeko agintarien politika desmobilizatzaile eta paktistak, PSOEn Gobernuak, PP eta kapitalista handiak harrotzeko bakarrik balio izan du. Egoera hori baliatuz, langileen aurkako eraso gehiago eskatzen egon dira gure bizi baldintzen eta gure etorkizunaren kontura ondasun multimiliodunak pilatuz.

Beharrezkoa da mobilizazio eta borroka eraginkorren bidea berrartzea. Adibide asko ari gara ikusten mundu mailan. Horretarako, oinarritzkoa da kurtso hasiera honetarako greba orokor berri bat deitzea. Orain arteko greba orokorrek eta M15 mugimenduak erakusten dute honelako deialdi batek gazteen eta langileen babesa izango lukeela.

Agintari sindikalek aukera garrantzitsua dute egoera erabat aldatzeko. Langile klasearengana, gazteriarengana eta M15 mugimendura zuzenduz, greba orokor berri baten aldeko eztabaida eta deialdia bultzatuz, batzarrak eginez eta denboran luzatuko litzatekeen borroka plan bateratu bat landuz, posible da kendu dizkiguten eskubideak berreskuratzea eta hurrengo hilabeteetan datozkigun erasoetatik defendatzea, eta nola ez, gizarte sozialista baten aldeko borrokan zutabe sendoak eraikitzea.

Kapitalisten aurkako borroka honetan langileok abantaila handi bat dugu: gure kopurua eta gure papera ekoizpenean. Gizarteak kapitalistarik gabe funtzionatu dezake baina langilerik gabe ez. Irabazi maximoa helburu bakartzat duten bankari eta enpresari handien aldean, langile klaseak askoz hobeto zuzendu dezake gizartea. Baina horretarako, ezkerreko alderdiek eta klaseko sindikatuak, bankaren eta enpresa handien desjabetzea defendatu behar dute. Langileok ekoizteko baliabideak kontrolatzen ditugunean bakarrik izango da posible hauek gizarteko gehiengoaren zerbitzura jartzea. Gizarte sozialista da krisiarekin, langabeziarekin eta soldata xakkarrekin betiko bukatu dezakeen sistema bakarra.

Baserriko produktuak

Xarma berezia du bertako giroak, inguruko baserritarrak beraien batzetan landatutako elikagaiek postutxo baten jarri, eta asteko produktuk eskaintzen dituztenen, kontsumitzaileen eta nekazariaren arteko harremana zuzena baita: "bai, aurten tomate earrak atea zaizkigu, baño denak saldu dittut, goizago etorri behar ziñun, Unai", "Ñosssss, hurrengon goizeko beatzitako jeki beharkoet...". Hobena gañea, garaian garaiko barazkik izaten dituztela da, oain-txe bertan piparrekintor-tzen die naparrotik, bertan erre ta enbotatzeko saltzen dituzte, kola earrak eoten die gañea.

Ematen duena baño garrantzitsuagoa da gure ingurutako baserritako produktuz betetzea gure sukaldak. Alde batetik, nola ez, daukaten kalitateagatik, garaian garaiko produktu fresko eta osasungarrik dielako. Batzuk ekologikoagoak izango dira besteak baño, hala ere ezin konparatu zentru komertzial handietan ibilitzen dituzten tomatekin, esate baterako. Eta bestetik, inguruko lurren emankortasuna hobetzea, gure inguruak beti bezain eder mantentzea, eta ekonomi krisi garai hontan, irabazi eta gastuak denon arten banatzea, diru banaketa justuago bat, merkataritza justuago bat emateko.

Euskal eta europar politikak industria handiaren aldeko apustu argia egin du, eta

txikiak desagertzeko bidean daude. Nekazariak ezin ditu bere lurak babestu proiektu handien aurrean, etxebizitzak, autobideak, AHT... Eta gainera lur hauek ustiatuta ere ateratzen duten etekina ikusita gutxi dira horrelako abentura batean murgiltzen direnak.

Ematen den nekazaritza, produkzio handietan dago oinarritua, gero eta gehiago produzitzeko hazi transgenikoak erabiltzen dira, eta baita produktu kimiko eta pestizidak ere. Lantegi bat bezala funtzionatzen dute, eta ezin da hutsik egin, ez eguraldiagatik, ez xomorrogatik ez ezer. Hori bai, irabaziak bitartekariarentzat izaten dira, hau da, zentro komertzial handiak etabar...

Egun munduko nekazariaren ehuneko biak, gizartearen ehuneko berrogeita hamarra elikatzen du, eta noski, guzti hau pestizida eta ongarrimikokoekin lagunduta. 2050. urterako munduan gutxienez bederatzi mila milioi pertsona izango garela aurreikusten da. Hau hola izanda, Europako, Estatu Batuetako, Txinako, eta herrialde aurreratuetako espekulatuzaileak mundu osoko lurak erosten ari dira, Europar ekialdekoak, Asiakoak, Afrikakoak, Hego Ameriketako lurak... Lehen etxebizitzak egiteko edo petrolioagatik erosten bazituzten, orain lur hauek lantzen izan ditzaketen irabaziengatik erosten dituzte.



Unai Igartua
Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Larunbat goizeko hamar t'erdia, ostiral gaueko afariko tertuliak alde batea utzi, konpratako karrtoa hartu eta hortxe noa Tolosako peria, asteko barazkik eroatera. Ikarri gustatzen zait produktu hauek ikusi eta etxea eramatea, eta nola ez, astean zehar beraiekin sukaldetan gozatzea.

Beraiek baino azkarragoak izan behar dugu, eta gure sustraietara itzuli, Euskal Herrian baugu lantzeko nahikoa lur, eskaera behar du Euskal baserritarrak, eta paraleloki etorriko da eskaintza. Bilatu gure produktuak, garaiko produktuak, produktu osasungarriak, ekologikoak, eta ziur krisia bera ere hobe joango dela, edo hobe prestatu egongo garela behintzat. Edo zer egingo zenukete esne litro bat hamar eurotara igoko balitz?



Irakurle Taldea. Azaroko tertulia

Eguna: azaroak 3, osteguna

Ordua: 20.00

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua: "Argi-itzalaren neurria"

Xabier Artola Zubillaga
bertan izango da



ezagutzeko aukera izan dugu. Azken hiru unitateetan Ana Alkain eta Beatriz Aio, Ilazki Euskaltegiko irakasleak, gurekin izan ditugu. Aholkulariak ere izan ditugu: Itziar Landa, euskaltegiko irakaslea, eta Joseba Ezeiza, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, hizkuntzak ikasteko metodoetan aditua.

Zure lanbidea euskara irakaslea izanik, zehazki zertan oinarritu da zure lana?

Alde batetik, lan-koadernoaren sortze-lanetan aritu naiz, eta bestetik, ikaslearen liburua-zen zuzenketa-, kontraste- eta aholkularitza-lanetan. Euskara-irakasle lanetan jardun duan 20 urteetan asko ikasi dut ikasleengandik: beren beharrak zein diren, gramatika erraz uler dezaten nolako hizkuntza erabiltzea komeni den, ikasleentzat zailegia edo errazegia zer den, larritasuna eta frustrazioa zer

eragiten dien, nolako ariketek motibatzen dituzten... Esperientzia hori guztia oso baliagarria izan zait lan honetan.

A1 mailako materialean agerturiko azalpenak gaztelaniaz eskaintzen omen dira eta mailetan aurrera egin ahala euskararen erabilera gehituz joango omen da. Nahitaezkoa gaztelaniaren erabilera?

Hasieran beharrezkoa da. Bakarrik ikasteko prestatutako materiala da, eta, ikasleak motibatuko baditugu, ahalik eta oztopo gutxien jarri behar diegu. Ingurune eroso eta motibagarria eskaintzen saiatu gara, hasi bezain laster frustrazioa sentitu eta euskara ikasteari utz ez diezaioten. Klasera doazen ikas-

leek irakasleen laguntza dute, euskaltegietan autoikaskuntzan dabilzanek tutoreen laguntza, eta bakarrik ikasi nahi dutenek metodoak eskaintzen dien laguntzarekin moldatu beharra daukate. Instrukziorik ere ulertzen ez badute, nekez egingo dute aurrera.

Dagoeneko erabiltzaileen iritzirik jaso al duzue? Zer diote?

Metodoa ondo saltzen ari omen da, beraz, badirudi beharra bazegoela. Euskaltegietako irakasleok poz-ozik gaude, Arianek orain arte behe-urratsetan izan dugun hutsunea beteko duela baitirudi. Ikasleei dagokierik, oraindik ez daukat daturik, ikasturtea hasi besterik ez baitugu egin.

Galtzaundi 351
11ko urriak 21



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA



8

soinua

Badira 31 urte Kilometroak festa lehenengoz Tolosan ospatu zela. Ospakizun data hori aitzaki hartuta Isidro Larrañaga Belokik Tolosako Akordeoi Orkestra sortu zuen 1980an. Gaur, 31 urte igarota bere semeari dagokio orkestraren zuzendaritza, Isidro Larrañaga Morenori, *Isitxori*. Galtzaundi entsegu aretoan barneratu eta zuzendaria eta orkestra kideekin mintzatu da lehiaketez, kontzertuez, bidaiez... akordeoi hotsak lagunduta.

Naiara Roldán de Aranguiz

Partiturak atriletan, zuzendaria batutari eraginez, teklatua eta perkusioa martxan eta akordeoiek behatz eta eskumuturren trebeziaren mugimenduari jarraika entsegua kontzertu pribatu bilakatuta ongietorria eman dio Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak elkarriketari.

Gaur egun orkestrak erakusten duen maila urte hauetan

guztietan eskainitakoaren jarraipena da, eta Europa mailako txapelketek gainera horren erakusle dira. Horrela kontatzen du, behinik behin, Isitxok: "1989an lehen irteera izan genuen zer nolako mailatan geunden ikustera joan ginen". Berak aitortu moduan orduan sorpresa hartu zuten. Izan ere, Frantziako Mutzig hirian antolatutako XIV

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra 31 urtez ari eraginez

9

Grand Prix International d'Accordéon nazioarteko lehiaketan lehen saria eta urrezko domina lortu zituen. Honela, nazioartean ezagutzera eman eta gaur egungo zuzendariak dioen moduan "orduan hasi ginen sinisten proiektu polita zela, maila ona genuela eta horrela jarraitu dugu aurrerantzean ere".

Urteen poderioz taldekideak aldatu badira ere, maila eta taldekide kopurua mantendu ditu orkestrak. Egun, akordeoilariak, teklatua, perkusioa eta dantzariak kontutan hartuta 37 pertsona biltzen ditu Isidro Larrañaga Orkestrak. 14 eta 44 urte bitarteko gazteak, emakumezko eta gizonezko artean parekatu samar, emakumezkoak gailentzen badira ere, dira taldea osatzen dutenak. Gehienentzat, musika denbora librean egiten duten jarduera da, euren eguneroko ikasketa edo lan bizitzarekin

batera. Tolosarrak edo Tolosaldeakoak dira, Lazkaoko goierritar teklista salbu, akordeoilariak soinubakarrean adierazi bezala.

Orkestra kideak behatzeko garaian taldea badirela antzeman daiteke, giroa badutela. Entseguak ostiralero 19.30-21.00ak bitartean izateaz gain, ondoren, bestelako ekintzak egiten dituzte batera, elkarrekin zerbait hartzea joaten dira: "entseguak badauka aparteko alde hori, taldea osatzeko lan hori", dio Isitxok. Aparteko giro horretaz baliaturik taldekide berriak orkestrako partaide izatea ez da zaila: "jendea kontagiatu egiten da, inplikatu egiten da giro onaz; nahiz eta adin *potpourri*-a egon, bat gara".

Nerea Zumeaga akordeoilariak azaltzen duen moduan orkestrako partaide izateko ez da probarik egin behar. Izan ere, gehienak Musika Eskolatik



ateratako ikasleak dira: "Musika Eskolan hasi ginen gehienak ikasten txikitatik, behin irakasleak ikusten duenean maila batera iritsi garela orkestrara etortzeko esaten digu". Bestela gerturatutako jendea, gutxi da;

Irati Hartsuaga ordea horren adibide izan daiteke. Hala ere, berak egiten zuen musika orkestrak ezagutzen zuen eta lana aurreratuta zuen; "bagenekien gutxi gorabehera zer mailatan ibiltzen zen".

Akordeoiak eta beste elementu batzuk

Akordeoiak ez dira orkestrako musika elementu bakarrak. Akordeoien doinuei perkusioak -kaxa, tinbal...- eta teklatuak ere laguntzen die, bai entsegue-tan eta baita kontzertuetan ere. Horren azalpena Isitxok eskaintzen du: "jotzen ditugun obretarako behar-beharrezkoak ditugu". Esaterako, 1960. eta 1970. hamarkadetan akordeoiak, trikitiak -akordeoi diatonikoa deiturikoak- ez bezala musika klasiko eta garaikiderako erabiltzen hasi zen. Horren abiapuntu hartuta Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak ere bide horri heldu eta musika klasikoa jotzen hasi zen, trikitiaren folklorea alde batera utzita.

Bidaiak, akordeoirik gabe ezin ulertu

Urte hauetan guztietan, 1989an nazioarteko txapelketa batean lehengoz aurkeztu eta baita saria eskuratu zuenetik bidaia ugari egin ditu Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak Europan barrena. Garaipen-zerrenda luzea du bere gain musika taldeak Frantzian, Italian, Suitzan, Kantabrian, Galizian edota Txekiar Errepublikan eskuratuta.

Emanaldi berezi edo hunkigarrien bidez hitz egiteko eskatuta, taldekide gehienek

aho batez "lehiaketak" hitza aditzera ematen dute. Austria eta Praga gogoan dituzte, musika munduan erreferente biak gainera: "Austrian kontzertu batzuk eskaini genituen, bidaia oso hunkigarria eta berezia izan zen guztientzat eta bestetik Pragan 2007an eta 2010ean lortutako sariak ere oso bereziak izan ziren". Lehen saria, urrezko domina, *laureate* izendapena eta *outstanding* kalifikazioa 2007an. Eta 2010ean lehen saria, urrezko domina, *laureate* izendapena eta *excellent* kalifikazioa helduen orkestrak eta bigarren saria, zilarrezko domina eta *excellent* izendapena gazteen orkestrak eskuratu zituen aipatu bidaian.

Sarien izen potoloak entzunda lehiaketen helbururik balizkoena hori izango dela pentsa daiteke, baina Irati Hartsuagak eta Nerea Zumeagak aitortu bezala bidaietan gauza ezberdinak ere bilatzen dituzte: "jotzen disfrutatzea, turismoa egitea eta lehiaketaren emozioa sentitzea". Are gehiago, "lehiaketek garrantzia dute baina ez saria irabazteagatik, emozio puntu hori izateagatik baizik; denak autobus batean sartuta joaten gara, emozio eta dinarekin. Horrek pila bat du, loturak eta manak asko esdira", diote orko beterranoek.

Diru-iturriak

Bidaia horiek ordaintzeko garaian ordea dirua taldekideen poltsikotik




atera behar izaten da. "Entseatzera etortzea ere poltsikotik ordaintzen dugu", dio Isitxok. Hala ere, Iratik gogoratu bezala zenbait kontzertuetatik eskuratutako dirua erabiltzen badute ere ez da nahikoa izaten bidaia zein inbertsioak ordaindu ahal izateko. Egoitz Riberak bestetik gogora ekartzen du 2006 eta 2007an Kutxa Fundazioaren Kultur Eskaintzaren egitarauan sartu izana. Horren bitartez eskainiko kontzertuetatik dirua jasotzeko aukera izan zuten. Gaur egun ordea horrelako eskaintza egitarauaren partaide ez dira.

Euren kezka gainera horretan fokaturik dago, nahi beste kontzertu eta emanaldi ezin ematea. "Entseatu, entseetzen dugu baina gero ez dago kontzerturik. San Joan eta Eguberritako kontzertuak izaten ditugu Tolosan. Saiatzen gara alde batean eta bestean kontzertuak aurkitzen. Horretan egia da erakundeek ez dakitela zer egin. Gure *caché*-a oso erraza da, autobusa eta afari-merienda baten truke edozein tokira goaz", laburbiltzen du Isitxok.





Udalak ostiralero Topic-en entseatzeko lokala uzten die eta gustura daude aukera honekin: "hasieratik oso harreman ona izan dugu udalarekin; prestazio zerbitzua deiturikoa eskaini izan diogu, lokala uzten digu eta gu prest gaude kontzertuak eskaintzeko", dio Isitxok.

Aipatu kontzertu horien adibide da Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak datorren urriaren 21ean, ostiralean, Yurramendi zaharren egoitzako kaperan arratsaldeko 18.30ean eskainiko duena. Herrian kontzertua eskaini ahal izatea "oso garrantzitsua" da Isitxoren hitzetan. Eta tankerako aukeren desioan egoten da Tolosako orkestra, deialdietarako prest. 

Disneyland Paris, Videopolis Theatre

Urriaren 30a, eguerdiko 14.00ak. Horixe da Tolosako Akordeoi Orkestrak Parisen jo eta disfrutatzeko duen zita. Izan ere, Disneyland Pariseko Videopolis Theatre-eko eszenatokia izango dute euren kontzertua eskaintzeko agertokia.

Aukera sorpresa eta sari gisa jaso dute Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako kideek. Bertan jo ahal izatea ez da erraza izan; hiru proba gailendu behar izan dituzte. Horrela zehazten du Isitxok berak: "curriculum-a aurkeztu genuen, ez genuen pentsatzen aterako zenik eta aurreneko bahea pasa genuen. Informazio gehiago eskatu eta orkestra kideek izugarriko aurkezpena prestatu zuten. Bigarren proba pasa eta entzunaldia egin behar izan genuen. 4 egunetara baietza jaso genuen".


Puntako musika talde profesional gisara hartuak izango dira ilusioen hiria den Disneyland-en, baliabide guztiak eskura izanik. Parisera gainera ez dira bakarrik joango; bi

autobus osatu dituzte, lehena orkestrako kideentzat eta bigarrena familia eta lagunentzat. Guztira 91 lagun bilduko ditu Tolosako orkestrak Frantziako resort-ean.

Europar barrena toki ugari eta lehiaketa franko bisitatu badituzte ere, emozio puntu bereziarekin daude Disneyland Pariseko kontzertuaren zain. Izan ere, honako hau lehiaketa ez bezala kontzertua izango da. Horrela azpimarratzen dute gainera akordeoilariak: "dagoneko ez goaz lehiaketa batera, kontzertu bat eskaintzera goaz. Ez da derrigorrezko obra bat eta programa libre bat aurkeztea, 40 minutuko kontzertua baizik. Guretzat sari bat da".

Sariaz gozatzea besterik ez zaie geratzen. Eta horretaz jabeturik Isitxok ondorengoa gaineratu nahi izan du: "maila emango dugu eta horretaz disfrutatu behar dugu. Aukera hau jasoz gero saiatu behar dugu guztiok 31 urte horiek ospatzen eta gozatzen". Zorionak, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra!


Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak
Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa


GORRI
Paper manipulaziorako
makina eraikuntza
Konponketa
eta mantenimenduak
Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia
Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



“5 urte zu

28 kanala tokiko euskarazko telebistak emititzeari ekin zionetik 5 urte bete dira urriaren 2an. Bosturteko honetan egindako ibilbideaz mintzatu gara Ion Aldanondo eta Gorka Sagarnarekin, zuzendaria eta marketin eta publizitate arduraduna, hurrenez hurren.

Naiara Roldán de Aranguiz

“5 urte zuretzat lanean... mila esker”. Horrela dio urteurrenaren ospakizun leloak, zuzenean ikusleari mintzatzeko zaiona. Izan ere, 28 kanalaren helburua, sortu zenean eta baita gaur egun ere, Ion Aldanondok zehaztu bezala “Tolosaldeko euskarazko telebista izatea da; bertako produktua izan, bertako informazioa eskaini, bertako jendearekin eta bertako jendearentzat lan egitea”.

Aplikazio berriak

Ikusleei begira 28 kanala sortzen doazen euskarri eta baliabide berrietara ere egokitze ahalegina egiten du egunetik egunera, ikusle perfil ezberdinari zuzendu nahiarekin. Horren adibide dira, [kanala.com webgunea, sare sozialak -Facebook, Tuenti eta Twitter- eta Vimeo edo YouTube bezalako atariak. Izan ere, azken bi hauetan, webgunean bezala, eduki guztiak zintzilikatuta aurki ditzake erabiltzaileak, deskargatu edota sarean ikusi ahal izateko.](http://www.28-</p></div><div data-bbox=)

Aplikazio berri hauekin batera 28 kanalak, momentuz eguneko 24 orduan musika eskaintzen duen irratia (106,7 fm) ere martxan jarri du. Irratia sortzearen arrazoia bezeroei beste publizitate irtenbide bat eskaintzea izan da. Horrela zehazten du Ion Aldanondok: “momentuz martxan dugun proiektua da, baina aurrera begira ikusiko da. Teknikoki telebista batek erraza du irrati bat martxan jartzea eta aukera teknikoak aprobetxatu nahi izan dugu. Ez da inori kompetentzia egiteko helburuz sortu. Gurea telebista da eta horretan egin nahi dugu indarra”.

Zailtasunak

Egindako ibilbidearen balorazioa oso positiboa da. Hala ere, izandako zailtasunen artean seinalea banatzeko garaian eta TDT edo digitalean lan egiteko orduan izandakoak ditu gogoan

Ion Aldanondok. Eta are gehiago, gaur egun ere konpondu gabekoak dira; 28 kanalak bere aldetik egiteko guztiak eginda baditu ere, Eusko Jaurlaritzaren zain dago. 2007an telebista digitalaren lehiaketan lizentzia legala eskuratu zuen, emititu ahal izateko legeak eskatutako bi emisio zentroak sortu zituen (Oiaun eta Villabona) baina frekuentzia Tele Donosti, Tele Bilbao eta Gipuzkoa Telebistarekin konpartitzen dituela eta arazo teknikoak daude, ez dago Gobernuak pentsatu bezala gutzientzako tokia. Moratoria sortu eta urte amaiera arte itxaron beharko du kanalak Eusko Jaurlaritzaren erabakia jaso, zentro txikiak piztu eta eskualdeko 28 herrietara telebista arruntez iritsi ahal izateko.

Programazioa

Tokiko euskarazko telebista honek 24 orduko programazioari aurre egiteko 5 lagunez osatutako lan taldean aritzen da. Honela barne produktzioa sortzeko aukera dago bai informazio saioko eta baita entretenimendurakoak ere. Honetaz gain, euskarazko tokiko telebista sareko partaide izanik egunean gainontzeko telebista



28 kanala, Tolosaldeako telebista

irretzat lanean...”



kateetatik 7 orduko programazioa jasotzen du eta azken tartea kanpo produkzioari dago-kiona da. Hau da, garai batean Euskal Telebistak eskaintako dokumental eta marrazki bizi-dunak, tokiko telebista sarearen bitartez erositakoak. Hala ere, Gorka Sagarnak jakinarazi bezala, arrakastarik gehien duten saioak barne produkzioari lotutakoak dira.

Horrela erakusten dute behinik behin erabiltzaileen datuek webguneko bideoak ikusteko garaian. Tolosaldeako telebistak gainera CIES enpresaren neurketak erabiltzen ditu ikusleentzako datu orokor batzuk eza-gutze aldera. Hala ere, zuzendariak argi dauka datu horiek

erreferentziarako baino ez direla: “audientziak ez digu gehiegi suposatzen, horren arabera ez ditugu gure erabakiak hartzen baina datu orokor batzuk hartzeko baliagarriak dira”.

Erabiltzaileen erantzuna neurtzeko erabilitako beste bideetako bat sms lehiaketena da; sare sozial eta webgunearekin batera aukera eskaintzen baitute ikus-entzuleekin *feedback*-a lortzeko. Egun, 5. urteurrenaren ospakizunaren harira 28 kanalak sms lehiaketa martxan du, zorionekoak bidaia bat irabaziko duelarik. Honako hau ordea ez da urteurrenaren ospakizun bakarria izango: “denbora aurrera joan heinean jakinarazten joango gara. Festa

Denboraldi berria

Walker. Eskualdeko mendi ibilbideak Eñaut Artiedak aurkeztuta. Asteazkenean, 18.00-tan eta 22.00etan

Kafe t'ardi alkatearekin. Astero eskualdeko alkate bati elkarrizketa herria aurkeztuz Gorka Sagarnak aurkeztuta. Ostegunero, 18.00tan eta 22.00etan

28 Klip. 4. denboraldi honetan eraberrituta. Oinatz Martinezek bideoklipik onenak zerrendatu eta eskainiko ditu. Ostiralero, 18.00tan eta 22.00etan

handirik ez dugu egingo baina zenbait ekitaldi antolatuko ditugu”.

Urteak aurrera egin ahala beraz ospakizunarako ekitaldi ezberdinen berri emango dute 28 kanalekoek. Amaitzeko ordea Ion Aldanondok burututako ibilbideari erreferentzia egin eta aurrera begirako desioei heldu die: “5 urteko ibilbidea telebista batentzat motza da beraz, espero dezagun urte askotan jarraitzea”. ©

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

www.sartutasortu.blogspot.com

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Mintzalaguna
egitasmoan
izena emateko
aukera zabalik da

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



Kike Zinkunegi

“Bidegorriak
tokia kotxeari
kendu
behar dio”

Kike Zinkunegi bizikletan ibili ohi da batetik bestera. Kirola egiteko, bidaiatzeko eta egunerokotasunean mugitzeko erabiltzen du. Tolosako Udaleko ingurumen teknikari, distantzia txikiko mugimenduak egiteko kotxea alboratu eta bizikletan ibiltzeko gonbitea luzatu du. Halaber, bizikletaren erabilpena bultzatzeko zer eginik badagoela onartu du.

Igor Mujika

Egunerokotasunean, noiz hasi zinen bizikletan ibiltzen?

Ni beti bizikletan mugitu izan naiz batetik bestera. Lehen Villabonan bizi nintzen. Tolosan ikasten nuen, ordea, eta koadrila ere Tolosan nuen. Ondorioz, egunero Tolosara bizikletan etortzen nintzen. Bizikleta mugitzeko nire bi-

tartekoa zen. Egun, Tolosan bizi naiz. Hala ere, bizikleta egunerokotasunean erabiltzen dut lanera, bilkuretara, joateko.

Bidaiatzeko ere bizikleta asko erabili dut. Santiagoko bidea, Euskal Herri barruan bidaiatxoak egiteko, Biko-teak ez zuen horren gustu-

ko nirekin bizikletan batetik bestera ibiltzea. Umea izan genuenetik, ordea, bere iritzia aldatu egin da. Izan ere, umea bizikletan eramateko karroa erosi genuen. Karroari tirakari ibiltzen naiz eta, ondorioz, erritmo mantsoan joaten naiz. Bikotea orduan animatu da bizikletan ibiltzera. Askotan esaten da umea izan eta hainbat gauza ezin izaten direla egin. Gure kasuan kontrakoa izan da, umeari esker bizikletaz bidaiatzeko,... aukera izan dugu. Eta oso esperientzia politak izan ditugu.

Egunerokotasunean bizikletan ibiltzeko, zer moduzko biktartekoak ditu Tolosak?

Tolosak aldaketa handia izan du azken urteetan. Oinezkoentzako leku gehiago egin dira eta oztopoak jarri zaizkio kotxeari. Kotxeari tokia kentzen bazaio beste alternatibak bultzatu behar dira. Ildo horretan, batik bat, oinezkoen guneak bultzatu dira. Hala ere, bizikletaren erabilpenari ere bultzadaxoa eman zaio bidegorriak zabalduz, bizikletentzako aparkaleku gehiago jarritz...

Bidegorriei dagokienean, oinezkoen eta bizikletaren erabilzailleen arteko errespetua eta elkar ulertzea lortu behar da, esaterako, Alegiara doan ibilbidean. Anoeta aldera joateko, oraindik gauzak ez daude ondo. Diputazioak Gipuzkoan 6 sare nagusi egiteko egitasmoa du, tartean, Donostiatik Tolosara doana. Datozen hiru urteetan Tolosa eta Villabona artekoa egingo dela aurreikusten da. Horrek, bertan egun dagoen mugimendu guztia modu seguru batean egiten lagunduko du. Alde horretatik, geroz eta hobeto gaude baina ez da

nahikoa. Bizikleta mugitzeko tresna da eta, berez, bere lekua errepideak izan behar du. Horretarako galtzadako mugimenduak seguruagoak izatea bultzatu behar da autoen abiadura murriztuz, ibilbideak argizatuz...

Toki askotan bidegorria tokia irabazten ari da baina espazioa oinezkoari kenduz. Helburua, espazioa kotxeari irabaztea izan behar du. Beraz, bidegorriak egitea oso ondo dago baina, beti ere, tokia kotxeari kentzen badiogu.

Zer egiten den baino, nola egiten den begiratu behar da beraz.

Erabilienak diren guneetara iritsi beharko litzateke bidegorria: kiroldegira, ikastetxeetara, komertzioetara, ospitalera,... Tolosa eta Villabona arteko bidegorria egiteko, esaterako, aukera ezberdinak daude. Bat, oso polita, Villabonako Sacem enpresaren ingurutik doan bidea bidegorri bezala prestatzea da. Beste aukera bat autobia ondotik egitea da. Bide hau ez litzateke hain polita izango baina egunerokotasunean bizikletaren erabilpena bultzatzeko, lantegietara bizikletan joateko,... Sacem-eko bidea baino eraginkorragoa izan daiteke, agian. Beraz, turismoari edo aisialdiari begirako bidegorria egin nahi bada garbi dago Oria ibaiaren ondotik doan Sacem-eko bidetik egingo dela. Aldiz, aisirako baino egunerokotasunean bizikletaren erabilpena bultzatzeko egin nahi bada, agian bigarren aukeraren aldeko apustua egin beharko da. Guk bi bideak aztertu ditugu.

Tolosak zein behar ditu?

Tolosan bizikletaren erabil-

pena asko igo da azken urteetan. Kiroldegira joan besterik ez dago horretaz jabetzeko. Ondorioz, bizikletarentzako egokitutako aparkaleku gehiago behar dira, adibidez, Trianguloan.

Bestetik, bidegorri sarea bukatu eta errebisatu egin behar da. Adibidez, Amaro auzoraino eta Anoetara doan zatia -azken hau Diputazioaren esku dago- egin beharko lirateke. Jende askok erabiltzen du Samaniego eta Orixe

moteldu eta gidarien bisioa handitu egingo litzateke.

Lokal zaharrak bizikletak gordetzeko egokitzea ere ez legoke gaizki. Izan ere, erabilerezatasunak bultzatzen du bizikletaren erabilera eta bizikleta etxetik jeisteko zailtasunak badituz, ez dudalako igogailurik edo eskailerak oso estuak direlako, ez dut bizikleta egunerokotasunean erabiliko. Sarri, bizikleta dende bizikletak bertan gordetzeko lokal bat prestatzen dute. Gas-



aldera joateko ere. Zati guztiak baldintza onetan dauden ala ez ere ikusi beharko litzateke: zabalera egokia duten, lurra ongi dagoen, seinalizatuta dauden, oinezkoekin gurutzak ongi markatuak dauden,... eta, errepidera sartzeko guneak ere tartekatuta beharko lirateke.

Kotxeak, gehienez, 30 kilometro orduko abiaduran ibiltzeko egitasmoa jartzeko aukera dago Tolosan. Modu horretara autoen abiadura

teizen, Donostian,... badira hain lekuak.

Faltan botatzen dut bizikletaren erabilpena bultzatuko lukeen eta txirrinu erabilzailleak bilduko litzatekeen elkarrekin ere.

Tolosa barruan, 2 km baino gutxiago egiteko, egunero 6.000 ibilgailu mugitzen dira. Tolosarrek erabiltzen dituzten ibilgailuak dira. Beste bitarteko batzuk erabiliko balira espazio laburrak egiteko, askoz ere arinagoa izango litzateke

egun hiri barruan dagoen trafikoa.

Garraio publikoak egokituta al daude bizikletak eramateko?



Garraio publikoak ez daude egokituta. Teorian, autobusetan eta trenean onartzen dituzte bizikletak baina, autobusen kasuan, bi bizikleta baino gehiago sartu nahi badira, lehenik autobus konpainiara deitzeko eskatzen dute. Trenean, berriz, gurpildun aulkiak joateko gunean,... eramaten ditugu. Garraio publikoa bizikletak eramateko egokitzeko aukerak badaude, autobusei parillak jarriz, treneko bagoiak egokituz,...

Bizikleta publikoak jartzeak bizikletaren erabilpena bulzatuko al luke?

Holanda, Dinamarca,... adi-

bideak dira bizikletaren erabilpenari dagokionean. Dinamarkan, adibidez, jende asko ibiltzen da bizikletan herrien arteko errepideetan.

Bazterbide potenteak eta ongi seinalizatuak dituzte, autoen abiadura murriztua dago,... Han ikusi nituen lehenengo aldiz bizikleta publikoak. Eroskiko karroen moduko sistema zuten: txanpon bat sartuz gune batean bizikleta hartu eta beste batean uzteko aukera zegoen.

Euskal Herrian ere badira ongi atera diren esperientziak. Uribe Kostan, esaterako, 150 bizikleta alokatu ahal dira eskualde osoan dauden 18 puntu ezberdinetan. Bizikleta normalak eta elektrikoak daude, azken hauek, batik bat, jen-

de helduari zuzenduak. 2 urte daramatzate bizikletak alokatuz eta 2.000-3.000 erabiltzaile dituzte. Lurralde buseko txartelarekin tre-

na, autobusa eta bizikleta erabili daitezke. Bizikletan 2 kilometro egiteko 0,15 zentimo ordaindu behar da. Batik bat, 35-50 urte artekoek erabiltzen dute. Erabiltzaileen %25ak, ordea, 50 eta 65 urte artean ditu. Egitasmo oso interesgarria da eta, Uribe Kostan funtzionatu badu, Tolosaldean ere eraginkorra izan daiteke, hemen biztanle kopurua handiagoa delako eta orografia askoz lauagoa delako.

Bizikleten lapurretak ohi-koak dira hiriburuetan. Nola egin aurre?

Gasteizen, aurtan, 500

bizikleta lapurtu dituzte. Nire iritzian, sarri ez dakigu bizikleta ongi lotzen. Sarri bizikletak eserlekutik lotzen dira. Eserlekua kendu eta bizikleta lapurtzea oso erraza da halakoetan. Leku irekietan eta zerbaiti gurpila eta koadroa lotuta utzi beharko genituzke. Giltzarrapo ona izatea ere garrantzitsua da. Izan ere, gehienok guraize batzuekin moztu ahal diren giltzarrapoak erabiltzen ditugu.

Bizikletak pegatina edo pitoi batzuekin markatzeko aukera ere bada. Bizikletak, gehienetan, gero beste leku batzuetan saltzeko lapurtzen dira eta pitoi edo pegatina horiekin bizikleta hori norbaitena dela ikusten da.



Motzean

Hirian ibiltzeko bizikletak zein ezaugarri behar ditu?

Txirrina, lohi-babesa eta argia.

Euria egitean?

Kapa bat jazten dut.

Arropa zintzilikatze ko pinta, erabiltzen al duzu?

Kable batean jarrita eramaten dut, galtzak katearen grasarekin ez zikintzeko.

Erosketak, non eramantzen?

Bizikletara lotzen den erosketarako orga atera dute. Bestela, alforjetan.

Umea, aulkian ala karroan?

Karroa atzeko aulkia baino seguruagoa da. Umea e- struktura berezi baten barruan joaten da eta oso zaila da iraultzea.

Irakurlearen begietatik



Ione Gorostazu
Irakurlea

Poesia gosea dela gogorazten digu Leire Bilbaok liburu hasieran. Halaxe ulertzen dut, neuk ere, poesia. Gosea, beharra, nahia. Gosea jakiteko eta ezagutzeko, begiratzeko eta ikusteko, zokomiran ibiltzeko, bizitzeko, eta, nola ez, baita gozatzekoa ere. Orain dela sei urte irakurri nuen Ezkatak, idazlearen lehen poema bilduma, eta hura gogoan, irakurtzeko irrikaz hartu dut eskuartean bigarrena; izan ere, idazlearen aurreko lanak eta liburu berriaren azal berde-berdeak, listua jariazten dio irakurleri eta orriz orri aurkitu nahi duenaren zain ipintzen du.

Leire Bilbao, Scanner

Eta ez nau ase gabe edo erdi-ipurdika utzi olerki-bazkak, ez horixe. Izugarri gozatu dut poemekin, banan-banan kosk egin, dastatu, murtxikatu eta irentsiaz. Izenburuak pentsarazten duen moduan, liburu honetan scannerretik pasa du mundua poetak, eta arretaz egiten dio so inguruari, izateari, gorputzari.

Sei atal ezberdinetan banaturik aurkezten zaigu liburua; izugarri gustatu zait horietan lehena, Amaz erditu naiz deitua. Bertan familiaren lotura ageri zaigu, sarri kontraesankorra dena, babesgari eta itogarri suerta daitekeena. Atzera begira egiten du aurrera idazleak, askatu nahi batean, eta, horretarako, ama eta alabaren arteko erlazioan murgiltzen da, gehien bat. Izan ere, batzuetan, aurrera egiteko modua buelta erdi eman eta jarraitzea da, eta joan gaitzeko, ibilian, ume garaietara, amaren eskutik portura joaten ginen egunetara. Joan gaitzeko aurrerago, aurkako norabide horretan, amaren baginatik barrena,

berrito umetokiraino, bi bat izan ginen txokoraino. Eta, bidaiari jarraituz, joan gaitzeko oraindik ernaldu ez gintuzten gau hotzera arte ere, aita eta ama elkarrekin zeuden oheraino. Eta horrela, bertatik bertara mintzo zaigu poeta, emakumea, umea, garden eta soil mintzatu ere.

Paperezko deiak atalean lau poema ageri zaizkigu, eta horietan Bilbaok umetokia utzi eta sormenaren eta literaturaren altzora egiten du jauzi, sortzaile bezala begiratzeko dio bere buruari, eta liburura gonbidatzen ditu bera elikatu duten hainbat izen, bere zati ere badirenak. Izan zirelako garelarik, nor ez da oheratu poeta hil batekin?

Liburuaren hirugarren zatiak Galdera bat da gorputza izena du, eta bertan poetaren ahotsetik gorputzasuna mintzo da, dela laztan emaille, dela laztan eske. Armiarmak beti gaude hanka-zabalik, eta bere animaliatasunetik eta bere haragitasunean mintzo da izatea, gorputz atal orotatik, askatasun eske.

Jarraian datorren Zakurrak labadoran atalean, berriz, zorian-tasuna zein mina aurki ditzakegu, baita galera sentsazio bat ere, idazleak modu surrealista batean begi aurrean jartzen dizkigun eszenei esker.

Asfalto gosea atalean garraibideak topa ditzakegu olerki guztietan; trenak, hegazkinak, taxiak, autobusak. Idaztea bada eta bidaiatzea, eta, poetaren begiradatik dena da poesia; horrela, azukre koxkor bihurtzen dira harriak, atzamar ebakiak enborrak.

Liburuaren azken zatian, Elurraren isiltasuna deituan, bideak ageri zaizkigu berrito, bidegurutzeak eta norabideak, eta ikusten da atzera zein aurrerako begirada. Bidea da aukeratu behar dena, baina, hara edo hona, jarraitu, jarraitu egin behar da, izan ere horrelakoa da jokoak: ez dago jarraitzea beste aukerarik.

Lan borobila iruditu zait Leire Bilbaorena, zuzena, zehatza, argia erabilitako scannerra. Poesiaz inguratuta bizi gara, gauza txikietan

dago poesia, egunerokotasunean, eta begiratu baino ez da egin behar, ikuspuntu egokian jarri eta argazkiak atera instanteei; hauxe da idazleak liburu honetan lortu duena, bere hitzetan esanahi eta esan-nahi handia duten eszenak erakustea. Sarri ingurura begiratu baino ez dugu geure barnea ulertzeko, poema askotako paralelismoek erakusten diguten moduan, mundu txiki baikara. Hondeamakinak gara, moila gara, armiarmak gara, poesia gosez gauden animalia gara, eta, asetze aldera, beldur barik kosk egiteko moduko liburua da proposatzen dizuedana.



Kup Taldea Abesb Europar Sari N

Urte osoan zehar Kup Taldeak azaroaren 5a markatuta izan du egutegian. Tolosako Leidor Aretoan ospatuko den 23. Abesbatza Kantuaren Europar Sari Nagusian begiak jarririk ditu. Urteko prestaketaren ondoren, taula gainera igotzekoa den honetan, zer sentsazioarekin dagoen abesbatza azaldu du Aitor Imazek, Kup Taldeko presidentek.

Naiara Roldán de Aranguiz

Kup Taldeak Tolosako eszenatokian 2010ean Europa mailako lehiaketa garrantzitsuenetan garaile izan diren gainerako taldeak izango ditu arerio: Coro Città di Roma (Italia), Consono Chamber Choir (Alemania), Svenska Kammarkör (Suedia) eta Cantemus Children's Choir (Hungaria). 20 urte igaro dira euskal talde bat lehen aldiz maila honetako sariketa batera iritsi zenetik. Kup Taldearen partaidetza beraz, bigarrena da eta, lehen gainera etxean lehiatuz.

Aitor Imazek, Kup Taldeko presidentek, azaldu moduan iazko maiatzean Toursen garaipena eskuratu ondoren Europako sari nagusi honetarako txartelak jaso zituzten. Ordudanik, "urte osoa data horri begira aritu gara, puntuan jartzen", dio Imazek. 2011 osoan zehar prestaketa lanetan jardun ondoren az-

ken txanpa geratzen zaie. Tolosako epaimahairen aurrean aritu aurretik urriaren 22, 23 eta 30ean Eibarren, Leioan eta Ascainen Tolosan eskainiko dutenaren aurre emanaldia izango dute, eurentzako prestaketa izango dena.

Tolosan 25 minutuz epaimahairen aurrean jardun beharko dira Kup taldeko 32 partaideak -16 emakumezko eta 16 gizonezko-, Imazek esan bezala "musikaren historia estilo ezberdinetan, antzinako musikatik gaur egunera artekora" aurkeztuz. Hala ere, irabazteko obsesiorik ez dutela aitortu du presidentek: "Europako sei lehiaketa nagusien ordezkarien artean egotea dagoeneko saria da guretzat. Gure lana ondoen egitera goaz, ahal dela eszenatoki gainean disfrutatzeraz".

Lehiaketa Tolosan, etxean ospatzeak ere berezi egiten



atza Kantuaren lagusiaren bila



du proba: "etxean zaude-
nean erantzukizun berezia
dago, exigentzia maila al-
tuagoa. Azken finean, etxe-
koak, lagunak eta euskal
abesbatza munduko jen-
dea guri indarrak ematen
egongo da". Eszenatoki gai-
nera igotzeko momentuan
pentsatzen jarrita, urduri
ere jartzen dela aitortzen
du Kup taldeko ordezka-
riak, "tripak nahastu" egi-
ten zaizkiola. Hala ere, Ga-
briel Balmesek zuzenduriko
errepertorio askearekin
gustura egonik, "programa
oso sakona, potentea eta
kalitate handikoa" izango
denaren ustekoa da Imaz.

Azaroaren 5ean, arratsal-
deko 17.30ean, Tolosako
Leidor Aretoan bere egi-
tekoa erakutsi beharko du
Kup Taldeak 2003an sortu
zenezan ezarritako helbu-
ruari jarraik: "konplexuta-
sun tekniko handia duten
maila goreneko obrak in-
terpretatzea", alegia. 



Porrotaren alde

Alberto Iñurrategi bere belaunaldiak hurrengoari utziko dionaz
kezkatuta agertu zen Galtzaundik antolatuta urriaren 14ean Oargin
eskaini zuen hitzaldian. Gailurrak egitea baino bidez gozatzea ga-
rrantzitsuagoa dela nabarmendu zuen.

 Galtzaundi 
11ko urriak 21

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04




BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

 matilda

zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com



irakurri entzun Ikusi

Bere aitaren alaba
Anne Berest
Itzultzailea: Jon Muñoz


Hiru ahizpa dira eleberrri honetan protagonista. Bizitzak banatu egin ditu, baina gaur aitaren etxean bildu dira urtebetetze bazkari baten kariaz. Oroitzapenak sortzen dira haurtzaroko beren etxera itzuli direnean. Keinu urdu-riak, mingainean trabatzen diren hitzak, mahaiaren inguruan esertzera lehiatzen diren haserreak... Postre garaian, berriz, bonba lehertu da: komentario zaurigarri baten ondoren, familiako sekretu bat agerian geratzen da, eta hiru ahizpen bizitza ez da aurrerantzean bera izango.

Hiri hartan izan zen
Mikel Markez

Oraingo hau bederatzigarren diskoa du Markezek; milaka kontzertu bizkar gainean eta sekulako ilusioa: kantu ederrak, soilak, atseginak sortzen eta kantatzen jarraitzeko. Grabaketan, besteak beste, Pello Ramirez eta Harkaitz Miner, Erramun Martikorena, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi izan ditu lagun.

Zeinek gehiago irau
Gregorio Muro

Donostiako Zinemira Kimuak sailean aurkeztuta. Film laburra. Haur jolas arriskutsu batek Anderren eta bere familiaren bizitza aldatuko du betiko.



hit_zord_uak

Urriaren 21etik azaroaren 4ra bitarteko

Kontzertuak

Def con dos. Urriak 21, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Su Ta Gar. Urriak 22, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Napoka Iria. Urriak 28, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Montau abesbatza Txintxarri abesbatzarekin batera. Urriak 29, larunbata. Alegian.

Pirritx, Porrots eta Marimotots. Bonberenea txarangarekin batera. Urriak 29, larunbata.

Odol emaileak

Alegia. Urriak 21, ostirala. Sendagilearen etxea. 19.00

Tolosa Kantari

Urriak 29, larunbata. Agirre doktorearen plazan, Tontokalen. 12.00



Bertso Afaria

Urriak 22, larunbata. Lurre elkartea, Tolosa. Anjel Mari Peña-garikano, Jon Maia eta Andoni Egaña arituko dira. Informazioa eskuratzeko 943 67 15 32 telefono zenbakira deitu daiteke.

Sentsi- bilizazio Astea

Gorren komunitatearen VIII sentsibilizazio astea. Urriak 22, larunbata. Adiskidetasun traineru estropadak, pertsona gorren eta gorrak ez direnen artean, txistorra eta sagardo dastaketa, Gipuzkoako Gorren Elkartearen 50. urteurreneko omenaldia, Donostiako Elixir Films Dokumentala, bideo proiektzioa eta El Grito antzerki taldearen, 'El método Gronholm'.

Erakusketa. Urriak 23 arte. Tolosako San Frantzisko pasealekua. Zurezko obrak, bertan gorrek komunikatzeko dituzten trabak azalduko dira.

Azoka

Tolosa Goxua. Urriak 29, larunbata.

Azoka Berezia. Urriak 30, igandea. Bedaio. 10.00-16.00. Baseritar produktuak, animaliak, etxeko ogia, gazta, pastelak, taloak, margo lanak...

Zinea

Leidor

Hiru mosketariak. Urriak 23, igandea (17.00). Urriak 25, asteartea (17.00).

Abesbatza Lehiaketa

Urriak 29, larunbata. Tolosa, Leidor. 19.00. Musika profano sailean Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen ekitaldia.

Urriak 30, igandea. Tolosa, Leidor. 11.00 Haur abesbatzen sailean parte hartzen duten abesbatzen saioa. 16.00 Folklore eta polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen kantaldia. 20.00 Folklore eta Polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen saioa

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Windows sistema eragilea. Informazio bilaketa: Internet/Intranet eta posta elektronikoa	2011.10.26	30
Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa (Fresagailua)	2011.10.26	80
Errepresentazio grafikoa eraikuntza metalikoetan	2011.10.26	50
Dokumentazio teknikoaren elaborazioa, CAD-CAM programak erabiliz (Abiadura handiko Mekanizatu. Unigraphics NX)	2011.10.26	90
KZ eta KAKo makina elektrikoak	2011.10.26	40
Arku-elektriko soldadura	2011.10.31	413
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	2011.10.31	628

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?

Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



TOLOSALDEA gurea eta zurea
Instituto Superior de F.P. TOLOSALDEA

Urriak 31, astelehena. 11.00

Santa Klara eliza. Musika erlijioso sailean parte hartzen duten Ahots Taldeen emanaldia. 16.00 Leidor. Folklore eta Polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen kantaldia. 22.00 Tolosako Udalaren Harrera Ofiziala. 23.00-02.00 Beotibar pilotalekua. Abesbatza dantzaldia eta epaimahaiaren erabakia jakitera ematea

Azaroak 1, asteartea. 11.00

Leidor. Lehiaketako amaiera saioa eta sari banaketa.

14.30 Udal ferialekuan, Abesbatza bazkaria. 19.00 San Franzisko eliza. Erresuma Batuko Convivium Singers abesbatza-aren eskutik kontzertua.

Azaroak 3, osteguna. Santa Klara eliza, 19.30. Musika ortodoxo kontzertua, Ukrainiako Oreyra abesbatza.

Azaroak 4, ostirala.

Santa Klara eliza, 19.30. Kea talde mistoaren kontzertua Tomas Luis de Victoria musikagilearen errepertorioan oinarrituta.



Goardiako farmaziak

Ostirala, 21 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Asteazkena, 26 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Astelehena, 31 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Larunbata, 22 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Osteguna, 27 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Asteartea, 1 Morant R. (Zaballarreta, 1) Tolosa
Igandea, 23 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 28 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Asteazkena, 2 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Astelehena, 24 Morant R. (Zaballarreta, 1) Tolosa	Larunbata, 29 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Osteguna, 3 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Asteartea, 25 Etxebeste, Jesus Gernikako arbola, 3 Tolosa	Igandea, 30 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Ostirala, 4 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Iurreamendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdiak, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	Ertzantza
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa
Irura	943 690 720	Lizartza
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa
		Medikua
		943 682 228

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usubilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Harremanak datozen egunotako protagonista izango dira: lankideekikoak, lagunetikikoak, bikoteekikoak...Baliteke buruhausteak norberarengan baino besteengan fokatzea. Eztatanda ugari izango duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ohikoa dena baino lan gehiagorekin ibiliko zara. Horrek osasun arazo arinen bat ere sortuko dizu. Nahi dena eskuratu ahal izateko nahiaz gain esfortzua, ardura, antolakuntza eta lanaren planifikazioa ere beharrezkoak izaten dira.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Naturaltasuna, gazte sentitzea, nor-tasuna azpimarratzea, sorkuntza eta aisialdia, egunetik egunera zure bizitzan garrantzia hartzen doazenak dira. Zoriontsu izan eta bizitzaz disfrutatzea merezi duzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Gaur egun bizi dituzun zenbait sentimenduk iraganean dute oinarria. Ezinbestean esanahia topatu nahi baduzu iraganeko kontu horiei kasu egitea besterik ez zaizu geratzen.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Inoiz baino biziago zabilta, ikasteko gogoarekin. Berritua ere ikasten hasia burutik pasa zaizula? Jakin ezazu inoiz ez dela berandu onura ekarriko duten kontuekin hasteko.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Norbanakoaren balore eta bertuteen bila aritzeko garaia, norbere burua hobeto ezagutzen hasteko unea. Gauzei benetan duten balioa ematen hasiko zara, benetan zer den behar duzuna aztertuz.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Aspaldi utzita zenuen kontu horri berritua heldu beharko zenioke. Izan ere, inoiz baino seguruago zaude eta horrek aparteko indarra eskainiko dizu. Azken aldiko apaltasunak alde egingo du, baikortasuna zure alde jarriz.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Sosegua hartzeko garaia heldu zaizu. Dena ez da lana, eta noizean behin amets egitea ere beharrezkoa izaten da. Amets horiek gainera beste pertsona batekin konpartitzeak on egingo dizu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Etorkizunera begira zenuen asmo horrek babesa eta laguntza jasoko du, errealtateetik inoiz baino gertuago dago. Zaltetan berdineko pertsonen harremanetan egongo zara gainera. Elkartrukatzeko horrek on egingo dizu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lana aurrera eramateko duzun modua zalantzan jarriko zaizu eta horrek zure umorearengan eragina izango du. Ama oso presente izango duzu egun hauetan, jakinarazi iezaiozu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Burua inoiz baino irekiago duzu, esperientzia berriei ongietorria emateko prest zaude eta horrek zure ingurukoak harritu egingo ditu. Intuzioa ere bidelagun izango duzu. Azken hau aprobetxatzeko modukoa izango da.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Garai bateko kontuak bueltan dira, behin eta berriz malenkonia sentituko duzu. Aspaldi ikusi gabeko hori ere nolabait zure egunerokotasunean azaldu egingo da.






skunkfunk

Skunkfunk Store Tolosa

Kale Nagusia, 21-23
20400 Tolosa

Gertu...

T O L O S A K O
H I L E T A Z E R B I T Z U A K
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

24 H..

